

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Lehenik eta behin, enpresa ideia pentsatzen hasi ginen. Taldekide bakoitza bere ekarpena egiten hasi zen. Hainbat ideia ezberdin egon ziren eta bakoitzaren abantailak eta desabantailak aztertu genituen. Ideietako bat ehorztetxe bat irekitzea izan zen, baina ez betiko ehorztetxe bat, baizik eta produktu bereziak eskaintzen zituen bat, hau da, hildakoaren errautsekin egindako bitxiak.

Beste ideietako bat argazkilaritza denda bat irekitzea izan zen, baina enpresa ideia horrek ez zuela etorkizun handirik eta baztertu egin genuen.

Eta hirugarren ideia orain sakonduko dugun "MONTH" enpresa izan zen. Hilerokoaren inguruko denda bat izango litzateke, bai emakumeen mesederako bai ingurumenarenerako.

Pausu honi amaiera emateko, hiru enpresak aztertu genituen, eta lehen esan bezala argazkilaritza denda alde batera utzi genuen lehenengo. Gero MONTH eta ehorztetxearen abantaila eta desabantaila begiratu genien eta ohartu ginen hilerokoaren inguruko enpresak etorkizun eta joko handiagoa emango zigula. Hau guztia kontuan harturik, MONTHekin gelditu ginen.

Eta zertan datzan enpresa hau? Bada hilerokoaren mundua landuko dugun proiektu bat izango da. Gure gakoa emakumeei laguntzea da, eta aldi berean, zergatik ez, ingurumenari ere bai. Hori emakumeei produktu lasaigarri, berrerabilgarri eta bereziak eskainiz lortuko dugu. Baita ere, hitzaldiak eskainiko ditugu, emakumeen gorputzaren inguruko informazioa partekatuz. Horixe izango da, gehienbat, gure proiektua. Ondoren, pausuz pausu sakonduko dugu gehiago gure ideia.

Eta zergatik aukeratu dugun ideia hau? Lehenik eta behin, taldea osatzen dugun lau partaideak emakumeak gara, eta hilerokoa gertutik bizi eta jasan dugun gauza bat da. Guk ere, beste emakume askok bezala, egun ez oso atseginak igaro ditugu, eta horri irtenbide bat ematea nahi dugu. Beraz, hori guztia dela eta, gertutik jorratu ahal dugun gai bat iruditzen zaigu.

Beste arrazoi bat ingurumenaren kutsaduragatik izan da. Sortu dugun enpresaren helburuetako bat plastikoaren erabilera murriztea da. Izan ere, kontziente gara gaur egun bizi garen inguruan zein nolako kutsadura handia dagoen. Horretarako, mota ezberdinetako konpresa eta "salvaslip" berrerabilgarriak erabiliko ditugu, gauza askoren artean.

Enpresa guztiek bezalaxe, logotipo bat ere sortu dugu, gure enpresa identifikatuko duena. Gure logotipoa lore eta luma batez osatuta dago. Loreak freskura adierazten du. Lumari dagokionez, luma delikatua da, eta emakumeon gorputza hilerokoa dugun egunetan ere horrela egoten da. Horregatik, lumaren bidez, hileroko egunetan emakumeon gorputz delikatua adierazi nahi dugu.

Esan beharra dugu, gure enpresak denda fisikoa edukiko duela, Eibarko Untzaga plazan. Eibar herri aproposa iruditzen baitzaigu bere biztanleria kopuru altuagatik eta baita inguruko herrietako jendeak Eibarrera joateko joera handia duela eta. Horrela gure bezero kopurua handiagoa izan ahal baita beste herriren batean baino. Eta Untzaga plazan kokatu gara, Eibarko erdigunean baitago, eta jende gehien ibiltzen den lekua baita.

Jarraian gure enpresaren organigrama, bertan azalduz bazkide bakoitzaren kargua. Ikus daitekeen bezala, organigrama zirkularra da. Hainbat arrazoiengatik erabaki genuen hori. Hemen arrazoiak: Hierarkia-mailen garrantzia oso ondo adierazten da, estatus altuenaren ideia ezabatzen edo gutxitzen du eta maila berean postu gehiago jartzeko aukera ematen digu.

